



www.begiko.com

© Testua: 1995, JOSEBA SANTXO URIARTE

© Irudiak: 1995, IÑIGO ORDOZGOITI FONSECA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-11-7

Lege-gordailua: M-16308-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Bederatzitik gora berrargitalpen Zubia argialetxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Ditxosozko ditxolaria

Joseba Santxo Uriarte

Irudiak: Iñigo Ordozgoiti Fonseca

begiko

Altxurentzat

Amesgaiztoa



*M*ikel dut izena,
Martinez abizena,
baina potolotxoa naizenez gero,
«Toto» deitzen didate egunero.
Gustukoa dut bertsoa,
baina ez naiz bertsolari osoa.
Hitzak errimatzen dituenari
deitzen zaio «dixolari»
eta hori egiten badakit, aizue,
beraz, dixolaria nauzue.
Ona naizen ala txarra
zeuek erabaki beharra.
Nik, behintzat, egiten dut ahalegina
eta sinetsi oso dela atsegina.
Nire laguna izan nahi baduzu,
nik ere zurea izan nahi dut, aizul!
Nire modukoa bazara,
ondo konponduko gara.
Eta bestela ere, tira,
munduan denetarikoak behar dira.
Hauxe da, bada, azkena,
bukatu da nire aurkezpena.

Gehienek txalo egin zuten. Batzuek, barre. Eta batek txistu. Baina nik errurik ez. Irakasleak behartu ninduen, lehen eskola-egunean, neure buruaren aurkezpena errimaturik egitera. Bazezien hark —aitak esanda, segur aski— esaldiak errimatzea gogoko lana nuela. Nik pozarren onartu nuen. Jakina, lehendik prestaturik neukan eta!

6 Orduan, ikastaldeko liderra omen zenak hauxe bota zidan:

—Zu, bertsoLARRI! Ezetz errimatu hitz hau: MO-KOR-DO-A!

Besteek barre egin zuten. Barre-algara galantak atera zituzten. Irakaslea begira-begira geratu zitzaion taldeko oilarrari, baina ez zen ausartu berari ezer esaten. Orduan, neu bihurtu nintzen begirada guztien diana. Nire buruaren barruan errimak egosten ari ziren. Erantzun egokia aurkitu behar nuen. Baina arin! Halako batean, erantzuna bota nuen:

*Nire erantzuna HOR DOA,
kontsolatzeko mutil LERDOA.*


*Badakizu non den MOKORDOA?
Ipurdian daukazu MORDOA!!!*

Oraingo barre-algarak lehengoak baino ozenagoak izan ziren. Irakasleak ere gogotik egin zuen barre. Taldeko lider lotsagabea lotsagarri utzi nuen.

Jakina, eskolaren ostean, hantxe zen nire laguna, atearen alboan nire zain. Irakaslea joan zenean, niregana hurbildu eta zera esan zidan:

—Hara gure ditzolari trebea! Toto deitzen dizute, ezta, potolo? Bada..., tori, Toto!!!

Hark eman zidan ukabilkada ez daukat ahazteko. Betondoa belztuta etxeratu nintzen, baina banuen poz bat neurekin: bere lagunaren aurrean lotsagarri utzi izana. Bai horixe!



Etxera bidean, kolpea zela-eta gurasoei eman beharreko azalpenak pentsatzen aritu nintzen: «Bada..., futbolean genbiltzala..., bada..., baloi batek aurpegian jo ninduela... eta...».

Alferrik aritu nintzen *aitzakiagintzan*. Amak behingoan igarri zidan gezurra. Aitaren ateraldia ere markakoa izan zen:


8 —Ederki hasi gara! Lehenbiziko eskola-eguna eta begia belztuta zatoz. Zer ez dugu ikusiko ikasturtea bukatzerako!

Gutxi afalduta oheratu nintzen. Oheko izaren artean ezkutatu nahi izan nuen eguneko pasadizo gazi-gozoa, baina ezin. Buelta batera, buelta bestera, eta loak hartu ez.

Noizbait lokartu nintzen. Ametsak, ordea, ez ziren batere gozoak izan. Eskolako nire idazmahaiari sokaz loturik nengoen. Aurrean Garikoitz nuen, muturrekoa eman zidan berbera. Hitz errimatuak esatera behartzen ninduen eta, hitz bakoitzeko, zapla!, belarrondoko galanta.

Halako batean, esnatu egin nintzen, izerditan blai eta bihotza taupadaka. Gelako argia

pizteak mesede egin zidan. Argitasunak berehala uxatu zituen Garikoitzen itzal guztiak. Ohetik altxatu eta gelako idazmahaian jarri nintzen, zerbait idazteko asmoz.



—Bertso pare bat idatziko dut. Idazteak la-
saitu egingo nau —pentsatu nuen neure artean.

Ideiak barra-barra zetozkidan, bata bestea-
ren atzetik. Nire borroka bakarra errimarekin
eta neurriarekin izan zen, baina horretarako
ere egun irudimentsua nuen, antza:

10

*Garikoitz harro hori
kolpeak ematen
ez dugu, ez, makala;
hori da nabarmen.
Baina nire burua
nola gogorra den,
bere eskua ere
minberatuko zen!*

*Nik gaur jasotakoa
ez da samurra, ez,
baina uler liteke
ahalegin eginez:
Garikoitzek burua
huts-hutsik duenez,*

*eskuak darabiltza
buruaren ordez.*

*Orain nago bertsoan
lasaitzen barrenak,
kontsolamendu on bat
baitu nire penak:
hartzten duenez gero
ematen duenak...*

11

Loak ez zidan denborarik eman hirugarren bertsoa bukatzeko. Aulkian bertan hartu ninduen loak.

Biharamunean, esnatu eta idazmahaitik bertatik altxatu gabe ere, begi lausotuen aurrean nuen orria hartu eta bezperan jarritako bertsoak irakurri nituen. Hirugarren bertsoa bukatu gabe egoteak pena handia eman zidan.


—Zein izango zen, ba, azken puntua? —galdetu nion neure buruari, bezperako bertsoari errematea erantsi guran—. *Onenak..., azkenak..., kemenak...*

Dutxara sartu nintzen eta, gauzak zer diren gero!, bertan nengoela gogoratu zitzaidan azken puntua. Oso-osorik gogoratu ere. Txipli-txaplaka irten nintzen dutxatik eta, berriz ahaztu baino lehen, gauean idatzitako hirugarren bertsoari itsatsi nion:

12

*... noizbait hartuko ditu
emandako denak.*

Eskerrak azken puntua idatzi nuen, zeren, bestela, amak pasabidetik bota zidan garrasiak berriro ahaztaraziko zidan. Egia esan, amak bazuen oihukatzeke motiborik. Pasabidean zehar zabaldu nuen erreka ez zen izan nolana hikoia, alajaina!



Laster eskolarako bidean nintzen, begiak lo-
guratsu, betondoa minbera eta gauean idatzi-
tako bertsoak motxilatxoaren barruan.

Ikaskideek eskolara sartzean egin zidaten ha-
rrera ikustekoa izan zen. Batzuek eskua eman zi-
daten, aurreko eguneko egitadagatik zorionduz:

—Hori da eta, Toto! Gangar horrek eskar-
mentu ona merezi zuen!

13

Beste batzuek irribarre egin zidaten. Baten
bat ikaratu egin zen nire betondoa ikusita.

Ni neu Rocky-ren moduan sentitzen nin-
tzen: jota, baina pozik. Harrigarriena, ordea,
hauxe izan zen: baten batek Garikoitzi aurreko
egunean bota nion ditxoa arbelean idatzi zuen.



Hori ikusita, adoretu egin nintzen eta nire gaueko lana guztiei erakustea erabaki nuen.

Bertsoak guztiok batera kantatu genituen *Maritxu nora zoaz* doinuan. Hura erromeria!

Giroa paregabea zen, baina, halako batean, Garikoitz agertu zen, beti bezala ondoan hiru *lagun* zituela. Niregana hurbildu eta honelaxe hitz egin zidan:

14

—Zer? Ba al dugu bertso berririk?

Zartada batez erauzi zidan bertso papera esku artetik eta, begiak zabal-zabal zituela, irakurtzen hasi zen. Niri belaunak dardarka hasi zitzaizkidan. Txua lehortu egin zitzaidan ezta-riaren barruan. Sano neukan begian mina sentitzen hasi nintzen, etorriko zitzaidana pentsatze hutsarekin.


Orduan, berarekin joateko esan zidan Garikoitzek, nirekin bakarka hitz egin nahi zuela eta. Hankak blokeaturik nituen, baina bere esanari jaramon ez egitea are okerragoa izango zela pentsatu nuen eta, astiro-astiro, berarengana hurbildu nintzen. Pasabidean isiltasuna

zen nagusi. Arestiko kantuak eta algarak muturirik zeuden guztiz.

Ikastaldetik hamabost bat metrotara geundenean, bere besoa nire lepoaren inguruan jarri eta zera esan zidan:

—Egia esan behar badut, zuri beste begia belzteko asmoz etorri naiz gaur. Badakizu, bestea-
ren inbidiatan egon ez dadin, kar, kar, kar...

15



Bere barreak hezurretaraino sartu zitzaizkidan. Une batez, lurrun bihurtzea desiratu nuen, baina ezin ihes egin. Samatik ondo oratuta ninduen. Orduan segitu zuen:

—Ikusten dudanez, atzoko *laztana* ez zen nahikoa izan zure bertsozaletasuna asetzeko. Horrek amorrua ematen dit. Baina, bestetik, aitortu beharra daukat talentu pixka bat ere baduzula, eta nik atsegin dut talentua dutene-kin ibiltzea.

16 Nire beldurra harridura bihurtu zen. Benetan ari ote zen? Ala ironiazko hitzak besterik ez ziren izango haiek? Laster argitu zen nire zalantza.

—Tratu bat egingo dugu, Toto —esan zidan lehor—. Nik ez dizut ile bat bera ere ukituko, baina zuk niretzat egingo duzu lan.

—Zer esan nahi duzu? —galdetu nion, nire harridura ezkutatu gabe.

—Begira —erantzun zidan—. Hemendik aurrera bertsoak idatziko dituzu, baina gaia jarrita, lehiaketetan bezala, kar, kar, kar... Neuk jarriko dizut gaia. Eta, gainera, oraintxe hasi behar dugu. Hara, haxe duzu lehen gaia: bertso batzuk egin behar dizkiozu Jazintori; bai, Matematikako irakasleari. Hain da gogaikarria...!

Azkenean, ulertu egin nuen Garikoitzen jukutria. Bere gaiztakerietarako erabili nahi ninduen zital hark.

—Eta nahi izango ez banu? —galdetu nion inozo-inozo.

—Nahi izango ez bazenu, itsuek erabiltzen dituzten betaurreko beltz horietako batzuk erosi beharko zenituzke, bi begiak gaua bera baino beltzago utziko nizkizuke eta, kar, kar, kar...

Irtenbidea argi zegoen. Inorentzat derrigortuta lan egitea ez zen gozoa, baina, egia esan, betaurrekoen proposamena ez zen lar erakargarria.

—Tira, bada! —eman nuen amore—. Baina garbi jokatu gero!

—Garikoitzen hitza duzu. Ez zaitut ukituko eta, gainera, inor zu ukitzen ausartzen bada, bereak egin du!

Onartu beharra daukat une batez ziur sentitu nintzela morrosko haren babesean. Hala ere, ez pentsa guztiz lasai nengoenik.

Handik aurrera, gauzak zeharo aldatu ziren. Ikaskide guztiek errespetu handia hartu zida-

ten. Gehienentzat ez nintzen lehen bezain jatorra, baina, behintzat, sano heltzen nintzen iluntzero etxera.

Garikoitzek agindutako lehen lana arin burutu nuen. Izan ere, Jazinto irakaslea gai egoikia zen koplak barregarri batzuk idazteko.

18 *Koplatxo batzuk egingo ditut
lagun baten agindura
eta hasteko azalduko dut
Jazintok duen itxura.*

*Bere sudurrak «sei» bat dirudi,
«zero» bat bere buruak
eta «biderkagarriak» dira
bere gerri inguruak.*

*Antijuetan «bost» dioptria,
buruan «bost» ile zuri.
«Bost»aren taula azaltzen digu,
baina «bost» axola guri.*

*Pelotenari «bost» jarri dio
eta ez da nota txarra.
Eta zergatik? Bera delako
lokartzen ez den bakarra.*

Nire koplaxoek harrera paregabea izan zuten. Garikoitzek fotokopiak egin zituen guztientzat eta aspertu arte kantatu genituen atsedendietan.

19

Ni neu ere, zertan ukatu, gustura sentitzen nintzen, baina ez koplengatik, baizik eta ikas-kide guztiak batera eta umore onean ikustek poz handia ematen zidalako.

